

ttipi ttapa


406



Ricardo Baroja
eskolak 25 urte

03

Berako Ricardo Baroja eskolak 25 urte bete ditu aurten. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte urriaren 8an. Joxerra Lopez zuzendariarekin izan gara.



Igantzi XV. mendi
bizikleta ibilaldia

33

Ultzamako Patxi Ciak irabazi zuen irailaren 11n Igantzi XV. Mendi bizikleta ibilaldia. Asier Apeztexea arantzarra bigarren izan zen. 88 txirrindulari atera ziren.

2005eko irailaren 22a • XXV. urtea

04 HAURTZAINDEGIAK ERE LANEAN

Gurasoendako laguntza eta haurrendako hezkuntza



MUEBLES METS



Iarunbat arratsaldetan irekia

**4000m² ERAKUSKETA
moblez beteak:**

- errustikoak
- modemoak
- klasikoak
- gazteentzako
- sukaldeak
- bainugelak
- atsedenaldia
- iluminazioa
- dekorazioa
- merkealdiak
- tapizak

*Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 BERA*
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.mueblesamets.com



Konjuntorearen eskaintza

**MULTILAMINA SOMIER FINKOA
150*190**



**LATEX KOLTZOIA %100 FUNDAREKIN
ALOE-VERA TRATAMENDUA**

ESKAINNTZA 575 €

**DITUGUNAK BUKATU ARTE
KONTSULTATU BERTZE NEURRIAK**

Iraileko Iarunbat arratsaldeak itxita

Abona zaitez Giltxaurdira

Instalación Deportiva Municipal

Abónate a Giltxaurdi

Udal Kirol Instalazioa



Giltxaurdi

Udal Kirol Instalazioa
Instalación Deportiva Municipal

Tel. 948 411 307

o email: giltxaurdi@ayuntamiento-bazan.es

25 x 12,5 metroko igerileku klimatizatua.

Piscina Climatizada 25 x 12,5 metros.

12 x 7 metroko igerileku klimatizatua.

Piscina Climatizada 12 x 7 metros.

Jacuzi.

Jacuzzi.

Hidroterapiako zona:Sauna,biuru hurbierre eta bi tenperaturako ditza.

Zona Hidroterápica-Sauna. Biuru hurbierre eta bi tenperaturako ditza.

Zona hidrotérmica.

Muskulazio aretoa eta areto kardiovaskulerra.

Sala de musculación y cardiovascular.

Balneariozko sala.

Sala multirrecreativa.

4.500 metroko solarium gunea (berdegiak).

4.500 metros de solarium (verde).

Abonmentuko parke.

Parking abonado.

Jolasteko talde.

Zona recreativa.

ESKAINNTZA: URTEKO ARONDA 2005eko urtarraren 31a baino lehen ateraz gero, hila-bele beste kuota deskontatzen dugu.

OFERTA: ez ezaz el ABONO ANUAL urteko del 31 de octubre 2005, te descontamos una mensualidad.

BERRIRA: ikasleentzako abonoe 13 euro-hilabeteko.

GUERO: Abono de estudiantes 13 €/ mes.

Kirol kurteoen hasiera: urtarraren 3a. Izan emateak irailaren 12tik aintzin.

Comienzo de los CURSOS DEPORTIVOS: 3 de octubre. Inscripción desde el 12 de septiembre.

**Baztan Balleko Udala
Ayuntamiento del
Valle de Baztan**

RURAL KUTXA

Gesport

DATUAK...

- 25 urte bete ditu Berako Ricardo Baroja ikastetxeak. Urtemuga ospatzeko, gabonak bitarte hainbat jarduera eta erakusketa antolatu dituzte.
- Urriaren 8an izanen dute besta egun handia. Goizeko 11etan hasi eta arratsaldeko 7ak bitarte, erakusketak, haurrendako jostetak, bertsolariak, txarangak, bazkaria, kantuak, helduendako musika eta apar-besta.
- 104 ikasle dituzte aurten, guztiak euskaraz ikasten.



Joxerra LOPEZ *Berako Ricardo Baroja eskolako zuzendaria*

ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

«25 urteotan eskolatik pasatu diren ikasle-irakasleak gonbidatzen ditugu»

J. IRIGOIEN

Urriaren 8an izanen da 25. urteurreneko ospakizun nagusia. Pentsatzekoa da jendetza bilduko dela, ezta?

Seguru baietz! 25 urteotan eskolatik pasatu diren ikasle, irakasle eta guraso guztiak gonbidatu nahi ditugu ospakizunetara. Momentu honetan 104 ikasle ditugu, 80 familia inguru, eta horiek tratu zuzena dugunez bereaiekin kontatzen dugu. Eta horietaz gain, espero dugu ikasle eta irakasle izan ditugunak ere animatzea. Herrietan kartelak eta bazkarirako txartelak jarri ditugu salgai. Beran Errekalde, Ikuilu eta eskolan bertan, Etxalarren Herriko Ostatuan, Igantzin Bi-Biden eta Arantzan Burladan.

Zer erakutsi nahi du Ricardo Baroja eskolako honelako ospakizun borobilean?

Helburuen artean dugu Eskola Publikoaren papera eta baloreak aldarrikatzea: integratzailea baita, den-denak onartzen ditugulako; euskarazko irakaskuntza bermatzen dugula gaur egun, euskara hutsezko eredia dugu hemen; eta kalitatezko irakas-

«Ospakizunarekin Eskola Publikoaren papera eta baloreak aldarrikatu nahi ditugu: integratzailea izatea, euskarazko irakaskuntza bermatzea eta irakaskuntzaren kalitatea»

kuntza, irakasleen etengabeko formakuntzan ari garelako. Irakasle baikoitzak bere aldetik egiten dituen ikastaroez gain, klaustro osoak parte hartuko duen bi ikastaro ditugu aurten.

Dena den, urteurren ospakizuna ez da egun bakar batera mugatzen?

Ez, hemendik gabonetara hainbat aktibitate prestatu ditugu. Nagusiena urriaren 8ko besta izanen da. Gabonak bitarte, bai eskolan eta baita Berako Kultur Etxean ere, erakusketak egingen ditugu: argazki eta bideo-erakusketa 25 urteotako irudiekin, bai eskolakoak eta baita herrikoak ere, eta gero, lehengo ikasgela bat irudikatzen duen erakusketa bat, pupitre zaharrekina. Bestalde, 25. urtemugari buruzko liburuxka argitaratu dugu, argazki, elkarrizketa eta kolabo-

razioekin... kamiseta bat ere atera dugu. Azken batean, ospakizuna eskolatik herrira atera nahi dugu, herri osoarentzat baita interesgarria.

Pentsatzekoa da hori dena prestatzen jende anitzek parte hartuko duela?

Bai. Joan den ikasturtean deia egin genuen eta haren ondorioz irakasle eta gurasoak hurbildu ziren, eta lan-kidetza estua garatu da. Denetara 5 batzorde sortu dira eta lan dezente egin da. Horri esker atera da dena. Eta ezin ahaztu ikasleen partehartzea ere. Beraiekin egin dute kamisetaren logotipoa, aldizkarian parte hartu dute, argazki erakusketan ere euren txokoa izanen dute,...

Nola laburbilduko zenuke 25 urte hauek?

Aldaketa ugari gertatu dira: A eredu-ko eskola izatetik D eredu-ko izatera pasatu da; irakasleak berdin; formakuntza sakonagoa da, baita espezializazioa ere; lehen irakasleak Don ziren, orain ez; ikasle kopurua ere, lehen "kontzentrazio eskola" zen eta orain ikasleak 3 ikastetxetan banatzen dira... eta hola beste hainbat!



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Elizondoko haurtzaindegian ari diren neska-mutiko taldeetako bat, bere hezitzaileekin.

BERA, ELIZONDO, LEITZA ETA SENPEREN ZABALIK DAUDE

Kasik 300 haurrendako lekua dute eskualdeko 4 haurtzaindegien artean

Eskualdeko haurtzaindegiak handitzen ari dira. Aunitzen ustez bikotean biak lanean aritzearen ondorioa da. Kasu batzuetan egia da, eta gurasoek horregatik uzten dituzte haurtzaindegian. Baina bertze batzuetan, berriz, haurraren garapenerako urte bereziak direla eta, ona iduritzen zaie gurasoetaz aparte bertze erreferentzia batzuk izatea, hezitzailea edo adin bereko laguna.

Xan HARRIAGUE

Eskualdeko haurtzaindegiek eskaintzen dituzten leku gehienak bete dira. Izan ere, Baztan, Bera, Senpere eta Leitzako haurtzaindegietan eskaintzen diren lekuen %91,7a okupatuak dira.

Leitzan, 40 haur dira eta 2 toki gelditzen zaizkie. **Beran** 51 dira eta 59ko muga dute. **Senperen** izena eman dutenak 120 dira, baina egunero 36 baizik ez dituzte hartzen. Lan egiteko modua ezberdina da. Haurrak ez du egunero joan beharrik. Aldiz, joa-

tekotan delarik lekua erreserbatu behar dute gurasoek. Azkenik **Baztanen**, momentuz 50 haur dituzte eta bertze 6 toki libre gelditzen dira.

Haurtzaindegirik beteranoenak Leitzakoa eta Elizondokoa dira, duela 18 eta 15 urte hasi baitziren euren zerbitzua eskaintzen. Hasieran arrakasta ona izan zuten, eta berrikiago, duela bospasei urte, kopuruen aldetik gaizki ibili ziren. Baztanen zuzendaria den Kristina Goñik erran digun bezala «*haur guti genuelako ixtekotan egon ginen, bainan azken urteotan berriz eskaera izugarri igo da. Gaur egun*

boom-a somatzen dugu». Arrakasta horren froga ditugu, Senperekoa eta Berakoak. Duela urte batzuk ireki dira, baina berehala bezeroak aurkitu dituzte.

Naiara Arbelaitz Berako haurtzaindegiko zuzendariaren arabera, «*gurasoen tartean aunitz dira biek lan egiten dutenak, eta horregatik esker-tzen dute gure laguntza. Baina bertze batzuen kasuan, haurraren garapenean izaten ahal dugun garrantziaz ohartu dira. Etxean, haur ttikia maiz arreata guzien erdigunea da eta nahi duena egin dezake. Hemen berriz bertze ingurumen batean da. Ez da gehiago bakarra*». Leitzako hezitzailea den Karmele Lazkanok azpimarratu nahi izan digu ikuspuntu pedagogikoa, «*urte horietan oso aberatsa da gaztearentzat erreferentzia asko izatea, bai gurasoak edo tutoreak, baita familiarik kanpo dauden bertze pertsona batzuk ere, hezitzailea edo adin bereko*

lagunak. Sozializazio fase hori garrantzitsua da haurren etorkizunerako».

BI ASTE ETA ERDIETATIK HIRU URTE ARTE

Aipatutako herrietan, azpiegiturak eta egoerak ezberdinak direlako, eskaintzen diren zerbitzuak eta onarpenerako ezaugarriak aldatzen dira. Senperen dira haur gazteenak hartzen, bi aste eta erditik goiti. Beran, legeak dioen bezala, 16 astez goitikoan hartzen dituzte. Elizondon, berriz, haurrak 9 hilabete behar ditu. Azkenik, Leitzan, oinez ibili behar du edo urtea egina izan behar du. Senpereko, Baztango eta Bortzirietako haurtzaindegian bazkariak ematen dituzte. Leitzan, aldiz, gutti batzuk eskatu zutelako aurren ez dira ematen. Senperen 11 orduko haurtzaindegia da. Elizondon eta Beran 8koa, eta Leitzakokak, berriz, 6 ordu eskaintzen ditu.

ESKANTZEN DITUZTEN BERMEAK

Haurtzaindegiak edo behar bada aitzin eskolak, lantzen dituzten gaiak bizitzarako oinarriak dira. Adin ttikietakoak izanik askoz gehiago babestuak izan behar dute. Segurutasunagatik ere, haurren kopuruaren mugak jarriak dira. Leitzan, adibide bezala hartzeko, Karmelek azaldu zigun 40ko taldea hirutan banatua dela. Urtea eta urte eta erdi artekoak 12 dira eta talde bat osatzen dute bi hezitzaileekin, laguntza gehien behar dutenak baitira. 18 eta 24 hilabete dituzten 12 haurrak berriz, bertze hezitzaile batekin dira. Azkenik, helduenak, 2 urtekoak, laugarren hezitzaile batekin. Bertze herrietan antolamendua berdintsua izaten da.

Hezkuntza sisteman sartuak ez badira ere, hezitzaile guzietatik irakasle baten maila dute. Ardurak dituztenak, denek dute haur hezkuntzan diplomatura edo psikologia edo pedagogian lizentziatura. Hizkuntzari dagokionez EGA ere galdetzen zaie. Beraz, haur ttikia bertze batzuen esku uztea ez bada erraz, jakin behar da profesionalak direla eta maila ona eskatzen zaiela.

Finantzaketaren aldetik, haurtzaindegiko gastu gehienak Nafarroako Gobernuak ordaintzen ditu. Kristina Goñik erran zigunez, «Baztanen, %55a Nafarroako Gobernuak ordaintzen du. Udalak %25a jartzen du eta gainerako %20a gurasoaren esku gelditzen da».

HAURRAREN GARAPENA HELBURU



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Berako Mukixu udal haurtzaindegian, neskatxak serio lanean.

Karmele Lazkano Leitzako hezitzaileak aipatu digun bezala, ordu horietan ukitzen diren gaiak oso zehatzak dira. «Lan arlo berezi batzuk segitzen ditugu, haurren garapenerako oso garrantzitsuak izan direnak. Beti ere joko, kantu edo ipuinen bitartez, saiatzen gara, psikomotritzitatea, hizkuntza, komunikazio, errepresentazioa, ingurune soziala, afektibitatea eta autonomia lantzea». Kristinak, eskolako egun baten antz handia duen egitaraua ere azaldu zigun. «8etatik 10ak arte, harrera egiten dugu, haur guztiak ez direlako ordu berean etortzen. 9:45etan denek horizan behar dute. Ondotik, ordu erdi hartzen dugu bakoitzak aipatzeko nola iragan duen gaua edo as-

teburua. 10:15etan berriz, helburu pedagogikoa duen jarduera egiten dugu, 11ak arte. Orduan, gosaltzen dugu. Lehenago bakoitzak berea ekartzen zuen. Baina ohartu ginen jelsiak izaten zirela, beraz orain, udalak ordaintzen du eta denek berdina dute. Gero, eguraldiak uzten bagaitu, kanpora ateratzen gara, eta hor maiz joko libreak izaten dira. Gutti gora behera nahi dutena egiten ahal dute. 12etan goiza bakarrik egiten dutenak edo etxean bazkaltzen dutenak ateratzen dira. Bertzeen artean, berriz, ttikienek bazkaltzen dute eta ondotik handiagok, beti bi txandetan ibiltzen gara. Arratsaldeko egitaraua, siesta egin eta gero, goizekoa bezalako da».

Jon ABRIL Berako zinegotzia

“0-3 urte artekoa Hezkuntza sisteman sartu beharko litzateke derrigorrezkoa izan gabe”

Haurtzaindegiak hezkuntza sisteman sartzeko proiektua bultzatzen ari zarete. Azaltzen ahal diguzu zeintzuk diren zuzen arrazoiak?

Nafarroako haurtzaindegia sarea sortu zenean, gizarte zerbitzuetatik eta hezkuntzatik landutako proiektua izan zen: batez ere amak lan merka-

tuan sartzeko laguntza modu bezala: Europako hainbat tokiko esperientziak baikorrak izan dira. Baina, nahiz eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrak izan, horren gibelean proiektu pedagogiko bat egon behar du. Gaur egun gai berezi batzuk lantzen dira baina egoera nahiko nahasia da. Ba-

tetik bertzerak aunitz aldatzen da. Metodologia, didaktika... hezkuntza sistemak erabaki beharko lituzke, eta bitartekoak ere eman. Langileen hilabete sariak ez du Hezkuntzakoekin zer ikusirik, aunitzez apalagoak dira, lan baldintzak askoz txarragoak. Guk ez dugu planteatzen derrigorrezkoa izatea, gurasoaren esku egon behar du. Baina nahi dutenentzat baldintza onetan izan dadila. Horrela lan

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.info

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolorosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

| | |
|--|-------|
| Hego Euskal Herria | 28 e |
| Espainia | 28 e |
| Ipar Euskal Herria | 40 e |
| Europa | 40 e |
| Amerika | 108 e |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta | 23 e |



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Mecoko euskal preso politikoak oinarrizko eskubideen defentsan

Akordio, prozesu, elkarriketa... solasak barra-barra aditzen dira egunotan. Bide horretan, Euskal Preso Politikoon Kolektiboak isolamendu politikoaren bukaera, status politikoaren onarpena eta beronek dakartzan eskubide guztiak aldarrikatzeko borroka dinamika abiatu genuen den urtarilaren 3an. Bertzalde, Mecon emakumeon gartzelan bizibaldintzen etengabeko murrizketak jasan ditugu azken hilabeteotan batez ere. Arrazoi hauek guztiak medio, oinarrizko eskubideen defentsan maiatzetik borrokaldia abiatua dugu.

Hainbat gartzelatan bezalatsu, hemen ere zuzendari aldaketa izan genuen. Aldaketa gauzatu ondoren, betiko gisan, zuzendari berriarekin audientzia eskatu genuen eta ordura arte kolektibo moduan onartuak izan baginen ere, zuzendari berriak gure kolektibotasuna onartzen ez duela adierazi zigun. Joan den negu osoa bi preso politikok berogailurik gabe eman zuten, maiz euren ziegetan 10º baino tenperatura baxuagoekin. Kirol eta bertzelako jardueretan parte hartzeko murrizketak ditugu. Azkeneko urtean aurrez aurrekoak asteburutan egiteko arazo eta trabak ditugu. Hamar lagun zerranda ospetsua ezarri berri sigute, sei hilabete behin aldagaria. Bi modulutan gintuzten lehen, lau mo-

Eskutitz guztiarekin batera, idatzi duenaren izendeiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

dulutan banatu gaituzte orain (hauetako bat higitze txikiagoa eta bizibaldintza kaskarragoduna). Bistan da murrizketak denak isolamendu politikoaren isla eta ondorio direna.

Hau guzia guti balitz, eta 2. graduan gaudela kontuan izanik, urtarilean zuzendari berriak «aisialdi eta patio zigorra» betetzeko modua aldatu zuen. Aurreko zuzendariarekin 4 patio ordu genituen goizez, zigorra arratsalde modulu barranean edo ziegetan betetzen genuelarik. Orain berriz, egun osoan zehar betetzen dugu, patio ordu bakarrekin. Aipatzekoa da isolamendu zigorra beteta 2 patio ordu dugula. Hortaz, aisialdi eta patio zigorra isolamendu zigorra baino arinagoa bada ere, gogorrago bilakatzen da. Honi guziari eguneroko anekdota mordo gehitu beharra zaio.

Gai hauei guziei irtenbidea emateko beharra agerian utzi diogu zuzendariari instantzia eta idatzi ezberdinen bidez, baina egun ez dugu inolako erantzun edo jarraia aldaketarik jaso. Honegatik guziarengatik eta irtenbide bat bilatzeko asmoz, maiatza hasieran borrokaldia abiatu genuen; moduluka, txandaka plante gogorak eginez; alegia, gure ziegetan sartzera ukatuz arrastaka eramanak izan arte, eta ondotik errekuento apurketa, plante informatiboak eta

kontzentrazioak burutuz. Zuzendaritzaren partetik solaserako inolako bolariderik somatzen ez dugunez, eta borroka hau hasi genuenetik lau kide (hauek 10. artikularekin) eta gurekin batera borrokan zebiltzan bi kide preso politiko antifaxista urrundu dituzte la kontuan izanik, borrokaldiarekin segituko dugu adierazitako gai horien irtenbiderako jarrearik agertzen ez dituzten bitartean.

Horrelako egoerak eta okerragoak bizi ditugu egun hainbat estatutan barreiatuta gaituzten euskal preso politikook. Gure engaiamendua argia eta tinkoa da, kolektibo gisa dagozkigun eskubideak errespetatu daitezela; halaber, Euskal Herriari dagozkion eskubideak eta bertako biztanleon nahia errespetatzea. Gure borroka eta konpromezuak, euskal herritar oorenak, bideratuko baitu gure herriaren etorkizuna. Status politikoaren alde, Euskal presoak Euskal Herrira!

Zaine REKONDO
Mecon giltzapeturik gaituzten 12 preso politikoon izenean

Elkarlanean Adostuz, Ibon

Uste dut zure kasoan, aukera bat baino gehia-

go izan dituzula Elkarteko komisioko eta Ikas-tolako tabernaren antolatzaileak, legitimitate osoarekin hartzen dituzten erabakiak zureganatzeko.

Horregatik, ez nuen espero egin dituzun galderak Ttipi-ttaparen bidez iritsiko zirenik. Nere ustez, ez da egokiena jakinda maiztasunez elkar ikusteko aukera dugula. Zuk jakingo duzu, zergatik erabili duzun bide hau.

Nik, Umore Ona Elkarrek festetako aurtengo programan publizitatea ez jartzeko arrazoiak (bat baino gehiago), ez dut komunikabidez azalduko. Ez zait egokiena iruditzen gai hau prentsa bidez zabaltzera, izan ere, estatutoek adierazten duten bezala, komisioko hartzen dituen erabakiak, ezarritako moduan argituko baitira, bazkiden batek eskaera egin da edo batzar orokorrean.

Bestalde, aipatu nahi nuke Elkarrek bere 21 urteetan, bere laguntza ematen eta antolatzen ihardun duela, mota guztietako ekintzetan, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan aldiz, festetako programaren kasuan bezala, herriko beste talde batzuekin, beti burutu diren ekintzak adostuz, baita publizitatearena ere. Eta urten iragarkiaren kasuan, ez da hala izan.

Hori dela eta, espero dut, hurrengo urtean antolakuntza eta helburuak elkarlanean onartuz egingo ditugula, azkeneko urteetan bezala.

Umore Ona Elkarteko Lehendakari Miguel Jose Lekuona Salaberria

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2005-09-04

«Nire irudiko, jende nobleak ziren Ameriketara artzain joan ziren gazte haiek, eta jakitsuak bere gisara: inork baino gehiago zekiten bizitzaz eta naturaz, noiz egin behar zuen euria, txorien kantuak ezagutzen zituzten, bazekiten egurra noiz moztu behar zen, abildade sanaa zuten... Baseriko jendea ezberdina da. Haien aldean gu ez gara ezertarako gai»

Ana Mari MARIN
Elizondoko margolaria
Berria 2005-09-04

«Norberak erabakitzen du noraino izan nahi duen aske eta non jarriko duen bere muga. Beste kontu bat da gauza batzuei diezun beldurrak baldintzatzen duela eta eragiten duela autozentsura logiko bat. Gaur egun, Madrildik etortzen diren epai magiko horiekin, eta edozein unetan aurki ditzakegu Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua kartzelan.»

Xabier SILVEIRA
Lesakako bertsolaria
Berria 2005-09-04

• 11 GALDERA LABUR •

Kirol anizteta aritutakoa zara. Zein da gehien gustatzen zaizuna?

Bizikleta akaso, baina prestatzeko denbora anitz behar denez...

Praktikatzen ez dituzunetik, zein gustatuko litzaizuke probatzea?

Orain modan dagoenez, arraunean probatzea ez litzaidake inportatuko.

Eta kirolari baten izena eman behar bazenu?

Fernando Etxegarai erranen nuke, kirolari handia da eta hagitx ongi moldatzen naiz berarekin. Bere forfoa naiz.

Zertan prentsatsen du Patxi Saratik abiatu eta Larun aldera laisterka doanean?

Zein dutxa goxoa hartuko dudan proba akaututakoa.

Gustora zaude orain arte lortutako emaitzekin?

Gustora bai, baina beti gehiago eskatzen diot neure buruari.

Laisterka hasi zinenetik, hobetu duzula iruditzen al zaizu?

Alde handia somatu dut. Hobekiago prestatzen naiz eta, errate baterako, Sarako proba 4 minutu guttiagotan egitea lortu dut aurten.

Zein dira zure helburuak etorkizunerako?

Behobia-Donostia prestatzen ari gara orain. Ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz eta gero laisterka segitu nahiko nuke.

Igantzioko bestak gainean ditugu. Zer

da gehien gustatzen zaizuna?

Bezpera eguna eta plater-tiraketa hagitx gustukoak ditut.

Kirolaria izanda, gehiago ligatzen al da bestetan?

Ez dut uste, nik behinik behin ez dut sumatu.

Igantzioko bestak baino hoberik badago zure ustez?

Izanen dira akaso hobeak, baina nik ez nituzke aldatuko. Oporrak hartzen ditut bestetarako.

Badago juerga eta kirola nahasterik?

Bakoitza bere lekuan hobe. Irail hon darrean badira bi laisterketa, baina utzi egin ditut bestetan lasai egoteko.



Patxi IRAZOKI
Igantzioko kirolaria

ANTZUZELAI
S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

| | |
|---------------|-------------|
| Antzinaldeak | Tximiniak |
| Angelutak | Erlaiak |
| Orma antzinak | Moldurak |
| Leihak | Zokaloak |
| Ateak | Hilarrak |
| Arkuak | Marratzkiak |
| Pilareak | |

'Abujakada' Muzioa
Zakur antzekoa Txapetua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

• PINTURAK
• DROGERIA
• Esmalteak
• Bernizak
• Lasurea urpintura
• Margo klase guzikiak

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Profesionalentzat prezio berezia

PINTURAS PIKABEA MOLINERO

Zelain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • Tel: 948 630 240 • Mug: 627 622 333 • BERA

KULTURA

«La Ruta Natural» laburmetraiak irabazi du Bertizko Zinemaldiko Urrezko Iratzea

31 film ikusgai izan dira zortzigarren edizio honetan

ttipi-ttapa

Irailaren 9an egin zen Elizondoko Lur dantza-lekuan Bidasoaldeko Film Laburren Zinemaldiaren sari-banaketa. Bertiz Partzuergo Turistikoak zortzigarren aldiz antolatu du zinemaldi hau, udaletxe eta eskualdeko laguntzaileekin batera. Abuztuaren 22an hasi eta irailaren 9a bitartean Beran, Donezteben, Elizondon eta Hendaian egin dira zinemaldiaren emanaldiak.

Saridunei dagokienez, «La ruta natural» pelikula izan zen irabazlea, Alex Pastor zuzendari katalanarena. Ez zen sari-banaketan egon baina beretzako izan ziren Urrezko Iratzea eta 3.000 euroko diru-saria. Zilarrezko Ira-



Kataluniako Alex Pastor zuzendariak gidatutako «La ruta natural» laburmetraiak irabazi ditu aurten Urrezko Iratzea eta 3.000 euroak.

tzea eta 1.500 euroko diru-saria Francesc Taverak zuzendutako «Retruc» laburmetraientzako izan ziren. Gai naturalistak edota giza baloreak hobekien jorrazten dituen filmari

ematen zaion Bron-tzezko Iratzea eta 1.000 euroko saria Koldo Almandozen «Amuak» laburmetraientzako izan zen. Animaziozko lan hoberenaren saria, 1.000 euro eta Bron-

tzezko Iratzea, Juan Pablo Etcheverryk zuzendutako «Minotauromaquia, Pablo en el laberinto» laburmetraiak irabazi zituen. Akitania, Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroa edo

bertako egile batek egin-dako film hoberenarentzako saria, hau ere 1.000 euro eta Bron-tzezko Iratzearekin, Iñaki Martikorenarentzat izan zen, «La luz de la primera estrella» lanarengatik. Aktore hoberenaren saria Alterio familiakoek eraman zuten, Héctor, Malena eta Ernesto Alteriok. Pentsatzekoa zen bezala, ez ziren Lur-en izan. Akautzeko, bertze bi brontzezko iratze banatu ziren, diru-saririk gabekoak. Lehenbizikoa ikusleen saria, Enrique Gatok zuzendutako «Tadeo Jones» laburmetraientzako. Bigarrena argazki hoberenari saria, Iñaki Martikorenaren «La luz de la primera estrella» pelikulentzat.

ARTXIBOKOA

edredoi nordikoak • funda nordikoak • mantak • maindireak

OSATU ZURE LANDA ETXEA

1951tik

Casa Cambra

etxea-lentzeria

Tel: 948 230 634 • Tafalla, 13 • IRUÑEA

Ohe estalkiak • mantelak • albornoak • toailak • kuxinak

BERA

Liburutegia digitalizatu da eta hemeroteca zerbitzua estrenatu

Haur ttikiagoendako egokitua den txokoa ere badu orain

Amaia eta Ainhoa

Irailaren 12an inauguratu zen ofizialki Udal Liburutegia. Hamar bat hilabetez itxita egon ondok, irailaren 13tik aitzinerat jendearentzat zabalik dago hainbat berrikuntzarekin. Inaugurazio ekitaldian Helena Santesteban alkatesa, Jon Abril alkateordea, Juan Ramon Corpas Nafarroako Gobernu Kultura eta Turismo Kontseilaria, liburutegi sareko zuzendaria eta bertze hainbat agintari egon ziren. Lamixine BAT antzerki taldeko bi kidek narrazio labur batzuk eskaini zituzten, gisa honetako ekitaldi ofizialei umore puntu bat emanez. Egoitza bera itxuraldatzez gain, hemeroteca berria sortu dute liburutegian. Itxita egon den denbora honetan, zola berritu da, altzariak aldatu dira, liburuak gaurkotu dira eta bertako katalogoa informatizatu da. Udalak eraikina moldatzeko lanen kostua bere gain hartu du eta Kultura eta Turismo Departamentua mobleen kargu egin da, eraikina eguneratzeko laguntza teknikoa eman du eta informatizazio lanak egin ditu. Hobekuntza hauen on-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Lamixine BAT antzerki taldeko bi kidek, narrazio laburren bitartez, umore puntua eman zioten inaugurazio ekitaldiari.

doren, herriko liburutegiak Nafarroako Liburutegi Publiko guztieta-ko ondareetatik liburuak ekar ditzake Internet bidez www.navarra.es orrialdean sartuz. Liburutegiak orain helduentzako 40 eserleku ditu, haurrentzako 8, Internet konexioa duten 2 toki (berandugo 5 toki izatea aurrikusita dago). Kontsultarako 11.320 dokumentu konexioa duten 2 toki (berandugo 5 toki izatea aurrikusita dago). Kontsultarako 11.320 dokumentu konexioa duten 2 toki (berandugo 5 toki izatea aurrikusita dago). Kontsultarako 11.320 dokumentu konexioa duten 2 toki (berandugo 5 toki izatea aurrikusita dago). Kontsultarako 11.320 dokumentu konexioa duten 2 toki (berandugo 5 toki izatea aurrikusita dago).

Rikardo Baroja eskolako 25.urteurrena urriaren 8an

Urriaren 8an Ricardo Baroja Eskola Publikoak bere 25. urteurrena ospatuko du eta horretarako hainbat ekitaldi antolatu ditu. 11:00etan altxaferoa bota eta berehala, 11:30etan, haurrentzako jolasak hasiko dira Kulki taldearekin. 13:00etan bertsolarien saioa aditze-ko aukera izanen da eta Kuxkuxtu txaranga 13:30etatik aitzinera ari-tuko da. 14:00etan bazkaria izanen da eta ondok kantua saioa. Baz-

kalondoan, hurrek puzgarriekin eta Txarandaka Karsekin gozatzeko aukera izanen dute. Helduentzako musika ere izanen da, 17:00etan eta egunari akabera emateko suhiltzaileek aparra botako dute 19:00etan.

Egun osoan argazki erakusketa, bideo emanaldia eta aitzinako eskoletako gela baten erakusketa ikusgai izanen dira. Eskolako eremua- ren barrenean ostatu bat egonen da irekita.

FLASH

XI. Dantzari Ttiki Eguna

Datorren irailaren 25ean ospatuko da XI. Dantzari Ttiki Eguna. Gure Txokoa dantza taldearekin batera, Añorga, Zaldibia eta eskualdeko bertze dantza talde bat etorriko dira. 10:30etan harrera egingen zaie taldeei. 11:00etan kalejira izanen da, lau ibilbide ezberdinekin. 13:00etan jaialdia egingen da Altzateko Plazan. Beratarrek Agintariena eta Aureskua dantzatuko dute eta gainerako taldeek dantza bana eskainiko dute. Dantzariak herriko etxeetan bazkalduko dute eta arratsaldean haurrentzat herri kirolak izanen dira.

Erakusketa

Irailaren 28an itxiko dituzte ateak irailaren 3tik irekita dagoen Iñaki Amatriainen pintura eta eskultura erakusketa. As-telehenetik larunbatera idekia egoten da arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara eta larunbatetan egilearekin bisitak badaude 19:00etatik aitzinerat.

Ikastaroa

Urriaren 5ean Pintura taldekoak haur eta helduentzako pintura ikastaroak hasiko dituzte. Irakaslea Kika Sastre izanen da eta apuntatu nahi duen guziaz asteazken horretan bertan Ricardo Baroja ikastetxetik pasatu beharko da izen-ematera. Matrikula 22 eurokoa izanenda hilabeteko.

ANSONEA *Jatetxea*
 Ostatu eta terraza berriak ireki ditugu
 Eguneroko menua, karta eta ospelentzako menu bereziak.
 Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
 Alasta karrika
 BERA NAFARROA
 TLF 948 625 472
 sagardotegia jatetxea sagardotegia

BAR BOTXO OSTATUA

LESACA



ARGAZKIA: AITOR

Bittiriko bestetan giro ederra izan zen aurtengoan ere. Bigarren urtez egin zen goitibera lasterketa ikustera jende aunitz bildu zen, baina hiru ibilgailuk bakarrik hartu zuen parte. Akaso, joan den urtean izandako istripuek jendea gibelera bota zuten. Ondotik, berrikuntza gisara, asto karrera egin zen. Ortziraleko kontzertuan eta larunbateko bazkarian ere jende aunitz bildu zen. Igandean, eguraldi kaxkarrarekin egin ziren azken ekitaldiak.

Hainbat ikastarotan izen emateko epea irekia dago oraindik

Kultur Egunak azken txanpan sartu dira

Aitor AROTZENA

2005-06 ikasturtean emanen diren hainbat ikastaroetan izen emateko epea zabalik dago oraindik. Errate baterako, Beti Gazte elkartearen egoitzan sevillan, dantza-jazz, aurreantza (4 urtetik goitiko neska-mutikoentzat), ballet, ballet-heziketa (helduentzat) eta pilates ikastaroak eman nahi dira. Izen emateko epea larunbat honetan, irailaren 24an akautuko da. Horretarako edo informazioa jasotzeko 607 450930 (Ana) telefonora deitu behar da. Ikas-

taoak urriaren 1ean hasiko dira.

CLOWN-ANTZERKI IKASTAROA

Udazken honetan eskainiko den clown-antzerki ikastaroan parte hartzeko aukera izanen dute 14 urtetik goitiko neska-mutilek. Ikas-

taoak 20 ordukoa izanen da. Asteazkenetan emanen da, urriaren 5 eta 19an, azaroaren 8, 16, 23 eta 30ean eta abenduaren 14 eta 21ean, 17:30etatik 20:00etara. Ikastaroaren animatzaileak Ramon Albisur eta Esther Carrizo izanen dira. Izen ema-

teko edo informazioa jasotzeko 948 631163 telefonora deitu edota mugabeclown@terra.es e-posta helbidera idatziz egiten ahal da, baita Internet-eko www.uhartean.com helbideran sartuz. Ikastaro osoaren prezioa 48 eurokoa da.

Kultur Egunak azken txanpan sartuak dira

Euskara Batzordeak Udalaren laguntza antolatutako Kultur Egunak azken txanpan sartuak dira. Ortzegunean, irailaren 22an, «Maribitxiren ipuinak» entzungai izanen dira liburutegian 17:00etan. Ortziralean,

irailaren 23an, bertso-trama izanen da Matxinbeltzanean 20:00etan, Jon Maia eta Amets Arzallusekin. Josu Goikoetxea izanen da tramalaria. Larunbatean, Maialen Errotabehere zuberotarrak kantaldia eskainiko du Kasinoan 20:00etan, Arrano elkarteak antolatuta.

KIROL-FLASH

Iker Tainta txapeldun Logroñon

Iker Tainta, Doneztebe-ko Erreka taldean aritzen den pilotari lesakarrak irabazi du Logroñoko El Cortijo auzoan jokatu-tako IX. Iau terdiko txapelketa-Cava Faustino Saria. Irailaren 11n jokatu zen afizionatu mailako finalean 22-18 irabazi zion Abadiñoko Uriarteri. Txapelketa honetako frontoia berezia da, eliza baten gibelaldea baita, bere leiho, sare eta gisakoekin. Ohiko frontoietara ez ezik, frontoi bitxietara ere ongi egokitzen dela erakutsi du Taintak.

Emakumeen paleta goma txapelketa

Arkupe elkarteak antolatutako paleta goma txapelketa hasi da larunbat honetan, 13 bikotetekin. Larunbatero jokatu dituzte partidak. Finalerdiak urriaren 29an eta finala azaroaren 5ean jokatu dira.

Emakumeen futbol Lehiaketa

Irailaren 3an jokatu zen Batzoki elkarteak lehen aldiz antolatutako emakumeen futbol kopa. Bilboko Athletic taldeak, Espainiako txapelduinak, 5-0 irabazi zion Irungo Mariñori. Ohorezko sakea Pepita Goiak egin zuen. Berari eta bere semeari, Jose Ignacio Goia «Gofi»ri urrezko armarrria eman zien alkateak, Beti Gazteren alde egindako lana eskertuz.

BOBEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa · LESACA
Tfnoa: 948 637826

GOZZ-ALDE
JANERDUEKIAN

IRU BIDE
E E E
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

Tasitak - mantelariak - ehka maindirak
eskolako horrien mantelak etak...
berdatzen ditugu
Martxo buruzka,
kanpoteak paka behar izango dituzte
eta jate behar izango dituzte
Inoak berdatzen ditugu.
Tel:
948 627 660
659 481 980
etxeri
Plaza berria 6 -ra
eta iban bertako
eskaintza!!!

ETXALAR

9 ikasle berrirekin hasi dute ikasturtea Landagain Eskolan

Denetara 42 ikasle daude aurten, iaz baino 3 gehiago

Joseba eta Nerea

Bertze aunitzentzako bezala, herriko ttikienentzako ere irail hasieran akabatu ziren oporrak. Udako jostetak utzi eta liburu tartera bueltatu ziren joan den irailaren 8an.

Baziren urte batzuk ez zela hain ikasle-koadrila handia sartzen Landagain eskolan. Aurten bederatzi izan dira ikasturte berria hasi duten hiru urteko haurrak. Hauexek dira: Xabier Iparragirre, Axularkoa; Leire Iribarren, Matise-nekoa; Olaia Iturria, Larregikoa; Uxue Iturria, Arburukoa; Pablo Leza, Baratzenekoa; Maria Martin, Ura-mendikoa; Andoni Otxoteko, Bida-burukoa; Xabier Telle-txea, Eguzkitzakoa; eta Uxue Telletxea, Aran-berakoa.

Irakasleen artean ere aurpegi berri franko daude. Junkal Altzuguren eta Joxe Mari Remiro dira joan den urtetik segitzen duten irakasle fi-jo bakarrak. Gainera-



42 ikasle izanen ditu aurten Landagain eskolak. Argazkian kasik denak ageri dira, hiru urteko hasiberri batzuk kenduta.

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

koak berriak dira. Haur hezkuntzan, Mari Jose Gamioren ordezt, Olatz Arriola izanen da irakasle. Aintzane Ollokiegi hirugarren zikloko irakaslearen ordezt berriz, Maria Gonzalez egonen da eguberriak bitartean. Zuzendaria ere berria izanen da, Joxe Mari Remiro beratarra.

Koadro erakusketa Kultur Etxean

Joan den irailaren 4an hasi eta heldu den urriaren 2arte margo erakusketa berexia dago ikusgai Kultur Etxean. Joakin Etxarte iruindarra da eta Etxalarko hainbat etxe eta xoko agertzen ditu bere mar-

golanetan. Hagitz kolo-retsua eta bizia da erakusketa, argi joko politekin. Bisitatu nahi dutenek 16:00etatik 19:30ak arte izanen dute aukera astelehenetik ortziratera. Larunbatean berriz, 18:00etatik 20:00etara. Eta igandetan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara.



PERTSONAIA

Beñat MAIA

Aldalurko Beñat Maia hirugarren Igantziko mendi bizikleta lasterketan

Marka ederra egin zuen Aldalurko Beñat Maiak Igantziko XV. mendi bizikleta ibilaldian. Joan den irailaren 11n, igandean, egin zen ibilaldi hau eta bere kategoriako hirugarren postua lortu zuen 10 urteko txirrindulari gazteak. Erran digunez, nahiko komedi izan zituen ibilaldia akabatzeko. Katea ateriarekin ibili omen zen eta galdua ere bai. Hala ere, profesionalen pare ailegatu zen helmugara, 36 minutu eta 36 segunduko denborarekin. Ikusiko dugu hemendik aitzinera zer egingen duen. Momentuz bederen, zorionak.

LESAKA AUTOESKOLA

25. urteurren honetan %10eko deskontua matrikula guztietan

Arreta pertsonala. Orain internetaz ere

25 urte

Albistor 39 - H
Tfnoa: 948 637 870

ARANTZA

Asier Apezetxea gaztea Igantziko mendi bizikleta lasterketan bigarren

Aurtengo ikasturtean sei gaztetxok eskola estreinatu dute

Nerea ALTZURI

Asier Apezetxea gazteak, irailaren 11n Igantziko mendi bizikleta lasterketan bigarren postua erdietsi zuen. Hamalau urterekin hasi zen Asier modalitate honetan entrenatzen eta geroztik, Euskal Herriko nahiz kanpoko txapelketa ezberdinetan parte hartu du. Txirrindula sekula utzi ez badu ere, 1999tik iazko negura bitarte txapelketa alde batera utzi zituen, lan kontuak tarteko. Halere, joan den neguan indartsu hasi eta txapelketa ezberdinetan parte hartuz, emaitza onak lortu ditu. Apirilean hasi eta uztaila bukaera bitarte Euskadiko Openean korritu du. Hamabi proba egin ditu guzira eta azkenean, sailkapen orokorrean bortzgarren postua lortu



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA
Asier Apezetxea lanean

tu zuen, sailkapeneko bigarren nafarra izanez. Nafarroako selekzioarekin Espainiako mendi bizikletaren lasterkaldian parte hartu zuen uztailearen 15ean, 16an eta 17an eta elite mailan hamaseigarren geratu zen. Beraz, urtebazuetak atsedendia-oren ostean, gogoz berhartu du Asierrek men-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aitziber Almandoz Larralde 21 urteko gazteak aurten fisioterapia ikasketak bukatu ditu Bartzelonan. Otsailean, fisioterapia diplomaturan azken ikasturtea egiten ari ziren ikasleei Matagalpa, Nikaraguako iparraldeko herrira, hilabete baterako praktikak egiteko aukerasortu zitzaion. Aitziber uztailearen 17tik abuztuaren 18ra egon da bere ikaskide batzuekin. Hango amek osatzen duten erakunde batekin lan egin dute. Arazo fisikoak eta psikologikoak dituzten pertsona oro gizarteratzea, bizi baldintzak hobetzea eta ahal duten independentzi haundienaren jabe izatea du helburu erakundeak. Balia-bide ekonomiko eskas duenez, duela 10 urte horrelako elkarlana abiatu zuen erakundeak. Umeekin egin dute lan Aitziber eta bere lagunek, etxez-etxe fisioterapia eginez, eskuak erreminta bakarrak izanik. Fisioterapiatz gain, umeekin, gazteekin eta amekin solasaldi luzeak ere egin dituzte, bizipenak eta hango bizimoduaren gogortasuna eta gordintasuna barneratuz. Deus eduki gabe dena emateko prest direla kontatu digu Aitziberrek hainbat solasen artean. Esperientzia betegarria izan dela aitortu digu.

di bizikleten txapelketa erreldoa. Arantzako bideetan noiznahi ikusten dugu entrenamenduetan... Zorionak Asier!

Sei ikasle berri eskolan

Udaren azkenaldia udazkeneko kolorea hartzen du. Urtaro horretako lanak, ohiturak eta ibilerak nabarmenak

dira. Onddo aunitz dago aurten herrian nahiz borte inguruetan ere; ehiza denboraldia ere gaian; ikasturte berriaren murgiltzea... Aurten herriko eskolan hiru urteko bortz ikasle eta lehenengo mailako ikasle batek herriko eskolako xokoa eta ibilbidea ezagutu dute: Andoni eta Jaione Mazizior, Mi-

kel Goizueta, Jonatan Etxeberria, Nahia Labon eta Maddi Etxebeste gaztetxoek eskolako ikasturtea abiatu dute berte gainerakoekin batera. Irakaslegoan, ohiko bortz mailarekin batera, DBHkoen maixua Karmele Oronoz lesakarra izanen da; eta ingelesekoa berriz losune Etxebeste.

TOLDOAK salmenta-konponketa-alkairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak
 veneclan-ak-PVCzko **LEIHO** eta **ITXITURAK**
 Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behea - BERA

ALBERGEA JATETXEA
ATERPE
ARANTZA Tel: 948 634 179

BIZIKLETA TAILERRA
 errepede, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
 Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
 Kanitonberri 1, bis - BERA - Tel-Fax: 948 631 218

e
e
e

Aitzineko asteburuan artzai zakur lehiaketa, sagardo besta, nesken pala txapelketa...

11:00etan nesken pala txapelketaren finalak.
16:00etan Plater tiraketa eta ondotik berendua.
12:00etan Igantziko bigarren gazta lehiaketa.
16:30etan XXVI. Artzai Zakur Lehiaketa Mea-kaundiko zelaian.
19:30etan Sagardo besta, gazta degustazioa eta opil jatea.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Joan den urtean ikuskizun ederra eskaini zuen gazte koadrila honek beti-zuetan.

17:00etan Mus eta Partxis txapelketak.
20:00etan Altxaferoa eta ezkil jotzea TXAKAIN txarangak eta txanpainak

lagundurik. Ondotik karrিকা buelta kankailu eta buruhaundiekin.
22:30etatik aitzinera Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

11:00etan Karrika buelta, herriko txistulari eta dantzariekin.
11:30etan Meza Nagusia San Migelen omenez herriko Abesbatzak kantatua.



*Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue
 Igantziar eta bisitari guziei*

12:30etan Dantza Luzia.
17:30etan Pilota partidak:

- Kadeteak: Ansotegi-Berjera; Goienetxe -Madariaga.
 - Banaka lau terdiaren barranean: Apezetxea- Renobales.
- 20:30etan Igantziko dantzarien emanaldia.
23:00etatik aitzinera Dantzaldia HOLAKO taldearekin.

o

e E

Egun guzian haurrentzat jokuak eta gaztelu haizatuak.

- 9:00etan herri gosaria.
- 10:00etan Karrika buelta txistulariekin.
- 11:00etan kankailu eta buruhandiak.
- 12:00etan betizuak.
- 14:00etan Herri Bazkaria. Andoni EGAÑA eta Sustrai KOLINA bertsolariekin. Bazkalondoan "Zezen plazara" jaitsiera TXAKAIN txarangak lagundurik.
- 19:30etan Betizuak.
- 22:30etan dantzaldia Txu-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Joan den urtean bezalaxe, herri bazkariaren ondotik giro ederra izanen da. Aurtan, Andoni Egaña eta Sustrai Kolina bertsolariak arituko dira bazkalondoa alaitzen eta lehen aldiz, bazkalondoan zezen plazara jaitsiera egingen da Txakain txarangak lagundurik, betizuetan parte hartzeko. Plazan ere izanen da zer ikusi!

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURILIAK

Klase guzietako aseguruak herrian bertan!

Oskar Txoperena
Baratzondo 1
IGANTZI
Tel.Faxa: 948 637236
Mug.: 610 507579

igantziko harrobiak

Besta edemak pasall!

948 637 288 • IGANTZI

DESGUACES GASTÓN

- Istripua izan duten ibilgailuak erosten ditugu
- Harrapatzeko zailak diren piezaak
- Repuestoak

IGANTZI

Tel: 608 876 456 - 948 637 647 Lezaka-Igantzi errep. 2km.

OKILA

Restorantea

- Urinak, Iñhoak, Alkak, eskaleraak
- Obretarako lanak orokorrean

Lander Salas
Mikel Arburua

On egin janak eta kalterik ez edanak!

948 637 249 • Piedade gaina z/g
IGANTZI

LA VILLA *ONGI PASA BESTAK!*

JATETXEA

Urte osoan, ortziral, larunbat eta igandetan afariak

BESTA ONDOTIK, MUS TXAPELKETA

IGANTZI • Tfnoa: 948 63 72 90 (Erreserbak egiteko)

O E E E

e e e e e

610 22 15 28 • 948 638144 • **IGANTZIKO BENTAK**



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Herriko haurren pilota txapelketaren finalak larunbatean jokatuko dira. Aurtengoan ere ikuskizun ederra emanen dute, dudarik gabe, pilotari gaztetxoek.

txin Ibañez eta Jesus Tapizekin.

02:00etatik aitzinera Oiarzungu perkusio taldea.

Goizean Karrika buelta txistulariekin.

10:00etan Pilota partidak. Herriko haurren txapelketaren finalak.

17:00etan Betizuak.

19:00etan Herri kirolak. Aizkolari Gazteen II. San Migel Saria. Herriarteko era-kustaldia.

0:00etatik aitzinera Dantzaldia IRATS taldearekin.

E e
E e

11:30etan Bidasoaldeko kankailuen topaketa.

17:00etan Dantza JAZZ.

19:00etan Bertso pilota. Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariekin.

21:00etan Herriko dantzak (Muxikoak, jotak...).

22:00etatik aitzinera Dantzaldia IRATS taldearekin.

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementual eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiaik
- Mantenu rodilloak

Igantzi bentak
948 63 74 11

Ongi pasa bestak!!

Jose Canabal

Instalazio elektrikoak orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAS**

ONGI PASA BESTAK!!

☎ 666 57 58 99 • 948 637 541
IGANTZI
josecanabal@tiscali.es

BI BIDE

BÍ-BÍDE

Janaridenda

BESTA BERTSOAK
IRAN BERTSOAK

Gaizkizunak - IGANTZI
948 63 72 78

bortzIRUDI

BORTZIRIETAKO - FOTOKOPISTEGIA - INPRIMATEGIA

KARTELAK - KANPOTAK - BOKERAK - TOKETROAK
FOTODUPA DIGITALAK, KOLOROTAK, TONU-BELTZIAN - PLANGAK
ENKADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PAPERTEGIA - BUREGO MATERIALA
DISEÑU GRAFICOA - LOGOTIPOAK - ERRODULOAK - IMPRESIA

PASA ALAI ETA BESTA IN,
SANJAGELAK URTEAN BEHIN

GORA IGANTZIKO BESTAK !!!

Eztesara 26 behea • BERA • Tel-Fax.: 948 63 15 21

TALLERES BERRIZAUN

GASOLINERA LESAKA

IMANOL TELLETXEA ZUZAYA

Tel. 63 74 60 31770 Lesaka (NAVARRA)

Gas-olioa etxez etxe banatzen da
Kotxe berri eta zaharren salmenta
BESTA EDERRAK PASA !!

t tipi
t tapa

(0034) 948635458



Herri kirol jaialdian, herriko neska-mutil gazteek hartzen dute parte.

CONSEJO REGULADOR DE PRODUCTOS
BERBIZKUN S.L.

Iguzkiagirre Iturbide

Ongi pasatu bestak!!

- Harategia
- Janaridenda

Nagusia, 61 - IGANTZI
T 948 637 261

Carlos Txoperena
mendi garbiketak eta landaketak

Ongi pasatu Samnigotaki!!

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

IRUGLASS

Aluminio aroztegia
Kristaldegia
Funeraria artea

ISO 9001
ISO 14001
CE
R
CEN 138

GRABATUAK

LEIHOAK

KRISTALA

ALUMINIOA

ISPILUAK

BARANDAK

ATEAK

Etor zaitez gure orakusketa funterara, esteburnak barna

IRUGLASS

Aluminio Aroztegia eta Kristaldegia
Frain 9-10 • 31790 Igantzi - Tel: (34) 948 637 412 • Fax: (34) 948 637 800
e-mail: iruglass@iruglass.com www.iruglass.com

URROTZ

e
e e
e e
e

Herritarren eta baserritarren arteko herri kirol apostua izanen da egun haundian



20:00etan altxaferoak eta ezkilak beste hasiera emateko. **21:00etan** Zopak eta Xuri-beltxa herriko ostatuan. **Gauetz** dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin.

Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin. **Ondoren** sokatira, txingak eta joko gehiago: Ezkonduak ezkongabeen aurka. **Arratsaldez** dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariekin. **Iluntzean** eta plazan xingar jatea. **Gauetz** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

11:30etan Meza nagusia. **Ondoren** Herri Kirolak: Herriarrak baserritarren aurka. Aurreko urteko errebantxa. **18:00etan** Alebin, benjamin eta jubenilen II. Urrozko pilota torneoa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariekin.

8:00etan gazteen erretirada. **9:30etan** Urrozko gazteen II. txirindulari txapelketa. **10:00etan** mus txapelketaren finala. **11:00etan** Herriko gazteen artean pilota partiduak. **12:00etan** Urrozko helduen VIII. txapelketaren finala. **17:00etan** Haur jokoak eta txokolatada. **21:00etan** Herriko gazteak tanborra eta kazulekin

10:00etan Mus txapelketaren hasiera. **14:00etan** Herri bazkaria: Xebastian



ARGAZKIAK: ZARBO IBARROLA

Urrozko karriketaren animazio ederra izanen da San Migel bestetan.

poteoa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

nak gosaria debalde izanen du). **11:00etan** Gaztelu haizatuak eta karts. **13:00etan** aizkora apostua: Urrestillako Iriarte eta Zizurkilgo Otegi; Beintzako Telletxea eta Ibarroko

Otañoren aurka. **17:00etan** Gorriti eta bere animaliak. **20:00etan** I. Tortilla eta postre lehiaketa. **Arratsaldez eta gauetz hama-biak bitarte**, dantzaldia AGERRALDEarekin.

9:00etan Alkoholemia kontrola (gehien ematen due-

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

Melamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
Pintura eta berrizak
Bainurako mogleak eta osagarniak
KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

LEGASA

Dantza Luzea berreskuratu dute San Agustin bestetan

Duela berrogeita bortz urte inguru desagertua zen

ttipi-ttapa

Legasako gazteek Bertizaranako herrietan egiten zen Dantza Luzea berreskuratu eta dantzatu egin dute Legasako plazan, San Agustin egunean. Hor-tarako legasarrak Jo ala Jo kultur elkartearekin batean lan egin dute, Aurtitzeko eta Baztango xulubitarien laguntzarekin batera.

Herriar aunitz hurbildu zen eta ikusi ahal

izan zuten, orain dela 45 urtez pixke bat goiti-beheiti desagertutako Dantza Luzea. Zenbait herritar heldu ere hurbildu zen dantza ikustera eta hunkituak ageri ziren, bere dantza zaharra berriz ere gazteen aldetik eginik, ikusita.

Dantza luzearen giseko dantzak munduan arras zabaldurik daude, Euskal Herrietan eta Pirinotian batez ere. Ber-



PATXI LARRALDEK UTZITAKO ARGAZKIA

Legasako gazteek duela 45 urte inguru desagertu zen Dantza Luzea berreskuratu zuten San Agustin egunean.

tizaranan egiten zen Dantza Luzea edo Sokadantza, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako sokadantzekin antzekotasun handia dute. Dantza luzeek garran-

tzi handia izan dute euskal herrietan. Agintariak (alkateak, kargodunak, apaizak...) zenbait bestetan (momentu zehatz batzuetan) dantza luzearen prota-

gonista haundienak izaten ziren, Sokadantzaren burua edo azkendararen lekua hartuz. Dantza eginez, agintaritzaren eginkizun bat betetzen dela ageri da.

IKASTAROAK

Internet eta Nominaplus ikastaroak antolatu dituzte IFES eta UGTk

Cedernak Alkaiagan duen Enpresa Zentroan emanen dira

ttipi-ttapa

IFES erakundeak eta UGT sindikatuak, Cederna-Garalur elkartearen lankidetzarekin, Bidasoa eskualdean doko ikastaroak antolatu ditu "3 Helburua" izeneko Programa Eragilearen barnean. Aipatu ikastaroek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren,

Inafreren eta Europako Gizarte Funtsaren dirulaguntza jaso dute.

Ikastaroak besteren kontura lan egiten ari diren langileei edo azken urtean Nafarroan lan egin duten langile autonomoei eta Nafarroako Administrazio publikoetan aldi baterako kontratua dutenei zuzenduta



daude. Talde bakoitzak 15 ikasle izanen ditu.

Honela, urriaren 3tik 20ra, Internet ikastaro eskainiko da Cederna-Garalurek Alkaiagan daukan Bidasoako Enpresa Zentroan. Asteleheneetik ortzegunera emanen da 40 orduko iraupena izanen duen

ikastaroa, 18:00etatik 21:45etara.

Azaroaren 2tik 30era, berriz, Nominaplus izeneko 60 orduko ikastaroa emanen da leku berean. Ikastaro hau leku berean emanen da eta ordutegia ere berdina izanen da, asteleheneetik ortzegunera,

18:00etatik 21:45etara.

Informazio gehiago jasotzeko edo izen emateko Cederna-Garalureko bulegora jo behar da. Telefonoz, 948 625122 zenbakira edo faxez, 948 625132 zenbakira deituz ere egiten ahal da, 9:00etatik 14:00etara.

DONEZTEBE


Gazte Burrunba taldeak besta ttikiak antolatu ditu irailaren 23tik 25era

Igandean koadrilen arteko futbito eta frontenis txapelketa mistoaren finalak jokatuko dira

ttipi-ttapa

Gazte Burrunba taldeak bigarren urtez antolatuko ditu Doneztebeko besta ttikiak. Aurtun, aste hondar honetan, irailaren 23tik 25era izanen dira, ortziraletik igandera. Hau idazterakoan, oraindik egitaraua erabat zehaztu gabe bazegoen ere, ortziral arratseko 20:00etan botako da altxaferoa Santa Luzia plazan. Parte hartzen dutenentzat pintxoak eta poteak izanen dira, eta zopak ere banatuko dira Santamaria jatetxean. Gauerdiko 1:00etan Trikidantza taldearekin dantzaldia izanen da.

Larunbatgoizean, lehen aldiz paella lehiaketa eginen da plaza berean 11:00etan. Paella horiek janen dira herri bazkarian eta Agerralde akordiolaria arituko da bazkalondoa girotzen. Arratsaldean eta gauz dantzaldia izanen da Nexorekin. Beritze ekitaldiak antolatzeko asmotan dabil



Bederatzigarren txapela Kotetorentzat

Irailaren 3an jokatu zen Hernaniko Galarreta pilotalekuan Casino Kursaal erremonte txapelketaren finala. Buruz buruko txapelketa honetan, berriz ere Doneztebeko bi erremontelari handi izan ziren finalean: Koto Ezkurra eta Iñaki Lizaso, dagoeneko «klasikoa» bihurtu den

norgehiagokan. Erran beharrik ez da hainbat herritar joan zirela Hernanira, batekin ez bazen bertzearekin, txapela Doneztebera ekarriko zutelajakinda. Azkenean, Koto Ezkurrentzat izan zen txapela, buruz buru jantzen duen bederatzigarrena. Hameka final jokatu ditu eta bi-

tan bakarrik huts egin du arrelari bikainak. Lizasorentzat bosgarren finala zen, bortzak Ezkurren kontra, eta bakarra irabazi du. Baina Iñakik partida akituta onartu zuen bezala, «gaur egun Koto da onena eta partida perfektua egin behar duzu irabazteko».

Gazte Burrunba eta arratsean musika izanen da. Igandean mus eta

partxis txapelketa jokatuko dira. Arratsaldean berriz, haurren dakoak joakoak eta txokolata iza-

nen dira. Horretaz gain, Erreka elkarteak bigarren urtez antolatutako koadrillen arteko futbi-

to txapelketaren eta frontenis txapelketa mistoaren finalak jokatuko dira.

Zalain
jaketxea

e
e
e

TXANPA
SERIGRAFIA

estampazioak

>> 656784349
Josepa etxea
Doneztebe sarreran
txanpadoneztebe@yahoo.es

BORTZIRI

O
e
E e E
e e e e E
e

ELGORRIAGA

Kofradien Eguna ospatuko da igande honetan

Urriko lehen aste hondarreen ere bertze zenbait ekitaldi izanen dira

ttipi-ttapa

Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak hainbat ekitaldi antolatu ditu irailaren hondarreako eta urriaren hasierarako.

Igande honetan, irailaren 25ean, eginen da Kofradien Eguna. Jakina denez, egun honetan lau haizetatik etortitako kofradiekin adiskidetzen da Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradia. 10:30etatik 11:00etara ongietorria eginen zaie kofradiei. 11:15etan tren turistikoa abiatuko da Doneztebe eta Ituren aldera, pintxo mikologikoak dastatzeko. 12:15etan, Salvador Arotzarena zenaren omenez bosgarren aldiz antolatutako kaxuela lehiaketa eginen da. Segidan, lehen aldiz lehiaketa berezia eginen da. Lehiaketa honetan, Pisu Gehien duen Kofradia sarituko da eta kofradia bakoitzak bi partaide aurkeztu ahal ditu. 13:00ak aldera, epaimahaiak erabakia



ARTXIBOKOA

Duela bi urte izendatu zituzten Onddo eta Zizen Kofradiako kideak.

hartuko du eta 13:30etan lehiaketan parte hartu duten kaxuelen dastatzea izanen da. 14:15etan luntx mikologikoa eginen da.

Urriko lehen aste hondarreen segida izanen du Mikologia Hila-beteak. Urriaren 1ean, larunbatean, 18:00etan Juanito Mariezkurrenaren omenez zortzigarren urtez antolatutako kaxuela lehiaketa eginen da. Lehiaketa honetan parte hartzeko

gonbidapena jaso behar da.

Urriaren 2an, azkenik, Turistaren Eguna eta Besta Egun Haundia ospatuko dira. 9:00etan diana eta gonbidatuei ongietorria eskainiko zaie. 10:00etan Meza abestua izanen da. 11:00etan kofradiako kide berriak izendatuko dira. Ondotik, Arangurengo abesbatzak emanaldia eskainiko du. 12:30etan joaldunak ibiliko dira herriko karrike-

tan barna. Migeltxo Saralegi harri altxatzen ari-tuko da eta gero, sukalde lana eta onddo dastatzea izanen da, txistulari eta fanfarrearen animazioarekin. Segidan, Onddoaren Enbajadorea izendatuko da. 14:00etan luntx mikologikoa eginen da. Gero, bertan dauden pertsonen artean pisu gehiena duena izendatuko da. 17:00etan dantzaldia izanen da akordeoiaren laguntzarekin.

LEHIAKETAK

Agenda 21 logotipoaren bila dabilta Baztan eta Bortzirietan

ttipi-ttapa

Agenda 21aren logotipo eta eslogan bila dabilta Baztan eta Bortzirietan. Interesaturik dagoen edonork parte har dezake lehiaketan. Lehiakide bakoitzak bi obra (logotipo+eslogan) aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, beti ere euskarri informatikoan (jpg moduan bada, hobe). Lanak urriaren 21a baino lehen aurkeztu beharko dira. Bortzirietako kasuan, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi edo Lesakako udaletxeetan edo Cedernak Alkaiagak duen egoitzan aurkeztu behar dira, 14:00ak arte. Baztanen, Balleko Etxean edo Cedernako bulegoan aurkeztu beharko dira. Lehiaketa bakoitzean irabazle suertatzen denak 300 euroko saria jasoko du. Lehiaketa hauei buruzko argibide gehiago udaletxeetan izanen da ikusgai.

HERRIKO
OSTATU - JATETXEA

Antzokia kalea, 10 • 48400 BERRA
Etxeak • MAFARRA

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

JAKOME - GOZOTEKIA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

J. RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut

Tfnoa: 948 637 172 LESAKA • Sateletfnoa: 637 80021

SUNBILLA

Dantza talde berriak atera nahi ditu Ulibeltzak elkarteak

Berrogei haurrek hasi dute ikasturtea eskolan eta horietatik sei berriak dira



Jaione OTXANDORENA


Eskualdeko bertze zenbait herrietan egiten ari diren bezala, Sunbilla ere dantza talde berriak ateratzeko asmoa dago. Horrela bada, Ulibeltzak elkartetik adiztera eman dutenez, dantza ikasi nahi duen guztiak, haur, gazte nahiz heldu, mutil ala neska, edozeinek izanen du herriko denda eta tabernetan jarriko dituzten zerrendetan izena emateko aukera. Hasi batean herrian bertan dantzatzeko helburua dago, herriko bestetan eta herrian urtean egiten diren ekitaldietan. Horrekin batean, herriko txistulariak ere animatu nahi dituzte dantza taldearekin batera ibiltzeko. Beraz, horretan ere interesatua dagoenak Vidal Ibarri erran diezaiola.

Ikasturte berria


Berrogei ikaslek hazi dute ikasturte berria herriko eskolan. Donztebera borts gazte txo joan dira, DBH egitera, eta herriko eskolan sei haur berri hasi dira. Beraz, iaz baino ikasle bat gehiago izanen du eskolak. Azken urteetan bezala, Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko neska mutikoak beheitiko eskolan egonen dira eta Lehen Hezkuntzako 6-7, 8-9 eta 10-11 urtekoak, berriz, hiru taldetan banatuak, goitiko eskolan.

ZALANTZARIK BAI?


Ikasi euskaraz idazten eta irakurtzen!




Zerbitzuetan




Lantegian




Etxean eta umeekin






Administrazioan



Harremanetan



Karrikan

¿ALGUNA DUDA?

¡Aprende euskara!

MATRIKULAZIO EPEA IREKIA
MATRICULACION ABIERTA

Udal Euskara Zerbitzuak: Baztan, Bortziriak, Malenreka,
Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, AEK, IKA.

GOIZUETA

Sakoneko aldaketak izanen dira pinu-loteen subastetan

«Enkante batuak» egingen dira urtean bitan beste hainbat herritako loteekin batera

Esteban AROTZENA

Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentuaren proposamena Udalak ahobatez onartzeak aldaketa haundiak emanen dizkio orain arte indarrean egon den pinu-loteen enkante sistemari.

Hau idazterakoan oraindik zehaztu gabe zeuden eguna eta lekua, baina mendizainak emandako informazioaren arabera, Altsasun eta urriko lehenengo astean egingen da modalitate berri honetako lehenbiziko subasta.

Goizuetaz gain, bertan izanen dira Nafarroako mendialdeko

beste herri asko. Egur-loteen enkantea ahozkoa izanen da. Iaz saldu beharrekoak izan arren, oraindik Udalaren eskuetan dauden ondorengo bost lote hauek eramanen ditugue herriak Altsasura: Aritziarra, 3.465 m³ pinu insignis eta 162.885 euroko hasierako prezioa; Tantailepo, 3.617 m³ insignis eta 168.000 euro; Deskarga, 2084 m³ insignis, alertze eta izei gorri, 83.000 euroko prezioan; Burugorri-1, 3.080 m³ insignis, 102.000 euroan baloratua; Burugorri-2, 1.461 m³ insignis, 33.700 euroan; eta azkenik, Gaz-

tainenea, 1.680 m³ insignis, 47.343 euroko prezioan.

Azken urte hauetan zutik dagoen egurrak jasandako prezio jaustiera haundiak eraman omen du Udala Iruñetik etorritako proposamena onartzera. Kanpoko kompetentziaz gain, herri bakoitzak bere aldeetik antolatzen dituen lote txikien subastak ez omen zaizkie gehiegi interesatzen kontratistei, eta sistema berriarekin egoerari buelta ematea espero da. Gai honek Goizuetarentzat beste herrientzat baino garrantzi haundiagoa du, udalaren aurrekontuen



ARTXIBOKOA

Udal aurrekontuko zatirik gizenena mendiko diru sarrerena izaten da.

zaturik gizenena mendiko diru sarrerena izaten baita. Hasieran esan bezala, urtean bi enkante antolatuko dira eta urrian egingen denaren hurrengoa, martxoan izanen da.

Dirulaguntza Iruñetik

Gai honekin lotura estua du hurrengo aipamenak ere, 21.232 euroko dirulaguntza etorri baita Herriko Etxera Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusitik «herri lurren defentsan» egindako gastuen tru-

ke. Udalak 27.000 euro gastatu zituen orain subentzionatuak izan diren proiektuetan.

Yoga ikastaroa

Herrian bertan yoga egin nahi dutenei aukera ederra eskaintzen die Arkupeak jubilatuen elkartek, baina horretarako Milagros Apezteari izena eman beharzaio hilabete hau bukatu aurretik. Iaz arrakasta haundia izan zuen ikastaroak eta aurtengoa ere ez dute guttiago espero antolatzaileek.

ARESO

13. erromesaldia egin zen Aralarra

Mikel Larranbeberre apaizari azken agurra egin zitzaion

Juana Mari SAIZAR

Irailaren 5ean egin zen aurtengo erromesaldia Aralarra. Larrungo artzapez-barrutiko eguna izan zen eta 28 gurutze elkartu ziren, Aresokoa barne. Guarda etxetik hasita, eta «eliza berritza» gaia hartuz, gogoeta egin eta elizkizun eder batekin bukatu zen. Gogoan izan ziren behartsuak

eta Paraguaien dauden hiru monja euskaldunentzat 1.800 euro bildu eta eman zitzaizkien.

Mikel apaizari agurra

Hiru urtez zerbitzuan egon ondoren, Mikel Larranbeberre apaizari, irailaren 18an azken agurra egin zitzaion. Bertsoak, opariak eta haizmaiketako ederra es-



ARGAZKIA: MIKEL OLAZABAL

Mikel Olazabal txapelkun Lezoko txapelketan bere bikotea Altsatuko Aldaz zuelarik. 22-18 irabazi zieten Apeztexea eta Izari.

keiniz. Bere lekua fraile malestar batekin hartuko du eta hil honen 25ean bere lehen meza emango du.

Ontto sasoi ikaragarria

Ontto sasoi ikaragarria izan da aurtengoa. Jendeak izugarritzko ki-

loak bildu ditu, baina aipatzekoa da, Javier Barandarainek bildutako onttoa. Bere pisua 1,380 kilokoa izan baita.

Zeure uda
Teknia Corporaen
hasten da



Teknia
CORPORAE

Tel.: 943 660 150

- * 10 Gorputz sesioko bonoarekin, aurpegi tratamendu pertsonalizatua opari
- * 5 Aurpegi sesioko bonoarekin, gorputz tratamendua opari (Promozio hauek trukagarri dira antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzuekin)

IRUNGO BIHOTZEAN.

Juan de la Cruz, 5 (SAC/HAZen ondoan) · 20302 · Irun · info@tekniacm.com

LEITZA

387 ikaslek hasi dute ikasturtea bi ikastetxetan

188 Erleta eskolan eta 199 Amazabal Institutuan

ttipi-ttapa

387 ikaslek hasi dute 2005-06 ikasturtea herriko bi ikastetxetan, Erleta eskola publikoan eta Amazabal institutuan.

Erleta eskolan 188 ikasle hasi dira, horietatik 75 Haur Hezkuntzan (3tik 5 urtera) eta eta 113 Lehen Hezkuntzan (6tik 11 urtera). Lehen aldiz eskolan hasi diren 3 urteko haurrak 28 dira aurtengoan. Neska-mutiko hauek arduratzeko 21 irakasle izanen dira.

Amazabal Institutuari dagokionez, 199 ikasle arituko dira aurtan Baxilergoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten, iazko kopuru berbera. Erletatik eta Aresoko eskolatik 28 ikasle berri etorriko dira eta Araitz aldetik eta Goizueta eta Aranotik beste 16 neska-mutiko mugitu beharko dira egunero, DBHko 3. maila egitera. 33 irakasle izanen dira aurtan Amazabal institutuan.



ARTXIBOKOA

Asier Arzallus, herriko 22 urteko saskibaloi jokalaria fitxatu berri du EBA Ligako Atletico EHUK. Arzallus Tolosan hasi zen jokaten eta 16 urte zituenetik Gasteizko TAU Baskonian aritu da, hasieran beheko mailetan aritu zen eta azken bi urteak lehen taldean eman ditu, Dusko Ivanovic entrenatzaileak minutu askorik eman ez badio ere. Orain, Donostiako taldean minutu gehiago izango dituenaren itxaropena dauka Arzallusek.

ARANO

Sukaldean erabilitako olio biltzeko zerbitzua eskainiko du Udalak

Gimnasia ikastaroa hasi da astelehen eta asteazkenetan

Kontxi KLABER

Sukaldean erabilitako olioaren kondarrak askotan arraskan behera bidaltzen ditugunez eta gure inguruari mesede gehiegirik egiten ez dionez, aukera daukagu guztia pote batean gorde eta udaletxean abisua eman, etxetik pasa daitezten kondar hauek jasotzera noizean behin.

Gimnasia ikastaroa

Irailaren 19an hasi zuten gimnasia kurtsoa. Astean bitan elkartuko dira kontzejuko ganbaran herriko emakumeak, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etatik 20:30tara hain zuzen ere eta ekaina bitarteko iraupena izango du.

Matarrasa

Ontzorrotz eta Etzabalpeko baso soilketa edo matarrasalana Orozkoko Made-

ras Barrondori eman zitzaizkion abuztuaren 4an, 147.691 euroren truke.

Kanposantuaren berritzea

Kanposantuko berrikuntzeko lehiaketa lehen saiakeran hutsik gelditu ondoren, bigarren lehiaketan Excauciones y Transportes Haritzari eman zitzaion irailaren 19an, 200.695,46 euroko arrekontuarekin.

Aranotik Goizuetako eskolara

Aurten ere, joan zen urtean bezala, hiru lagun doaz Aranotik Goizuetako eskolara. Herriko batek Goizuetako egonaldia iaz bukatu zuen eta aurtun ordezko suroar bat hasi da. Lau urte pasa dira autobusa auzo honetara azaldu gabe, baina berriz hemen daukagu.

GAZTANDEGIA

Lizun
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Lanchas
 PARKETAK - TARIMAK
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
 ESTALDURA OROKORRAK
 Berra - Tfnoa: 948 630 735 - 407 404 781

BURKAITZEA
 ostatu erretegia
 Zugaramendi bidea, 3 km
 948 599 280 UROAZUBI

Ark_b arkitektura bulegoa
 Celia Lana Ranz
 Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel
 Eraikuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

gaztelu scl
iturgintza
 kalefakzioa • saneamendua • gasa

BAZTAN

Herri eskolen egoerari buruzko ikerketa egitea eskatu du Udalak

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak egingen du

ttipi-ttapa

Ikasle eta irakasleen segurtasuna babesteko helburuarekin, Baztango Udalak hamar herri eskolen egoerari buruzko ikerketa egitea eskatu dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari. Departamentu honek txostena egitea onartu du, baina akatsak topatzen badira, udal eraikinak direnez, moldaketa lanak Herriko Etxeak ordaindu beharko dituela gogorazi du.

Carlos Garaikoetxea, kultura eta hezkuntza zinegotziak gogorazi duenez, «gan den ikasturtean hainbat arazo izan dira, eskolen egoera kaxkarrarengatik». Ziga eta Amaiurko eskoletako teilatuak erori ziren, Azpilketan eta Arizkun arraildurak agertu ziren, Almandozko eskola egoera penagarrian dago... Bertze arazoak ere agertu dira: «Erratzuko eskolan –dio Garaikoetxeak– kalefakzioa jartzen hasi eta he-



ARTXIBOKOA

Arizkongo eskolan arraildurak agertu ziren duela hiru urte. Ikasturte honetan, aldiz, berri hobeak dituzte, urritik aitzinera jantoki zerbitzua eskainiko baitute. 29 ikasle matrikulatuak daude eta momentuan zortzik erabiliko dute jantokia. Herriko Etxeak 2.518 euro ordaindu ditu sukaldea jartzeko eta Guraso Elkarteak ordainduko du Jangarria catering enpresa. Honek, ikasle eta eguneko 3,70 euroko menua eskainiko du.

zetasunaren eta ixurien eraginez soliboak ustelak daudela ikusi dugu. Horrek lanak zaildu eta garestitu ditu». Duela aste batzuk, sute batek Oronozko herriko gimnasioa erre zuen eta

zenbait ikasgela kalte-tu zituen.

Arazo guzti hauek ikusiz, egoera orokorrari buruzko ikerketa egitea nahitaezkoa dela iruditzen zaio Udalari. Hezkuntza Departamen-

tuaren erantzuna «*bitxia*» iruditu zaio Carlos Garaikoetxeari: «*lehenik ikasle eta irakasleen segurtasuna bermatu nahi dugu, eta gero ikusiko da lanak nork ordaintzen dituen*».

FLASH

Arizkongo frontoia

Balleko Udalak Arizkongo Elkartasuna frontoiko teilatua moldatzeko lehiaketa atera du. Hasierako aurrekontua 318.585 eurokoa da eta Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak 129.000 euroko dirulaguntza emanen du. Otsailaren 13an haizeak hegatu zuen teilatua eta geroztik arizkundarrek lehenbailehen moldatzea eskatu dute.

Arraiozko hilerria ez da aurten zabalduko

Arraiozko hilerria zabaltzeko Balleko Etxeko udal aurrekontuan sartua zegoen aurten. 42.000 euroko aurrekontuarekin, Nafarroako Gobernuak 30.000 euroko dirulaguntza eman behar zuen. Baina azkenean, ez da aurten egingen, «*beharreko dokumentazioa ez delakoz epearen barnean aurkeztu*».

Bai Euskarari

Bai Euskarari Akordioaren jarraipena egiteko teknikara kontratatu nahi da. Interesetuek iraularen 26tik 30era curriculumak aurkeztu ahal izanen dituzte Udaleko Euskara Zerbitzuan. Urriaren 4an egingen da euskara proba.

Pitti eskabazioak
 Tfnoa: 616 513 491

 Mendialdea etxea, 34 ZUBIERTA

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
 Parrilan egindako haragi eta arrainak
 Tel: 948 453 4 80 Fax: 948 453 375
 ARIZKUN

ANTIXITONEA Trinketa
 Jatetxea - Ostata
 Hotela - Trinketa
 Menu Bereziak
 Tel: 948 581 807
 948 581 853
 antxitonea@terra.es · Braulio Iriarte karkita · ELIZONDO

BAZTAN

e e

Aniztar bati omenaldia egingen zaio bezpera egunean



e e
12:00etan Ezkil Jotziak eta Altxaferuak.
Ondotik Aniztar bati omenaldia.
12:30etan Bermute.
14:00etan Haurrendako bazkarie.
16:00etan Haur jokoak.
18:00etan Txokolate jatia.
19:00etan Dantzaldie Mikel Salaberrirekin.
20:45etan Baztan-Zopak.
Ondotik Dantzaldia Mikel Salaberrirekin.
Akitzeko Zinger Jatea.

17:00etan Herri-kirolak.
17:30etan Aizkora apostue.
18:30etan Mutil-Dantzak.
19:30etan Kantaldie.
Akabailan Afarie.

e e e
 e
 E e
11:00tan Mus Txapelketa.
14:00etan Zikiro jatia, Joxe Angelek alaituko du.
Ondotik Omenaldi bat izanen da.
17:00etan Ginkana.
21:00etan Zinger jatia.
Akitzeko Gizajoa ni.



e
 e e
11:00tan Doneztebeko Txistulariekin Kalejira.
12:00etan Meza Nausie.
13:00etan Otordue.

ARGAZKIAK:
 MAITANE MARITORENAK UTZIAK
Goitian, gan den urteko bestetan, azken eguneko zinger-jatia. Erdian, 2003ko bestetan aizkora apostua jokatu zuten Bittor eta Mattarik, Asier eta Xabiren kontra. Behegian, 2002ko bestetan afal ondoko giroa.



etxeke behi gasna eta yogurtak

JAUREGIA

Jauregia - ANIZ

Tfnoak: 675 550 960 - 652 179 669

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio inarte 33,1º D - 31700
 948210963 iruñea - paulino caballero 15,1º A - 31002

ELIZONDON EREKI DUGUI!

abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

- ateak • leihoak • kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gubiko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
 Tel. 948 581 152 • 667 264 025 • 686 970 725
 maxena@terra.es

BRUNO

BRUNO

BRVO

Elektrizitatea

Tfnoa: 666 419 035
 Pascaña, 22 - 1º C - IRUN

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urutia
 Tfnoa: 948 580 013
 ELIZONDO

Lur

d i s k o t e k a

www.lurelizondo.com

irailak **24**

2005/06ko denboraldiaren

INAUGURAZIOA

GARRAXI

eta ondoren gure DJ'ak
LEHEN 500ENTZAT KAMISETA BAT DEBALDE

8'

01:00

urriak **01**

BARRA LIBRE

edan ezazu gau osoa
zure sarrerakin!!!

15'

01:00

urriak **08**

BINGO

bingoa 3:00etan egingo da

zure kartoia sarrerarekin batera
eskura ezazu
MARRA 300€ BINGOA 600€

8'

01:00

urriak **11**

DISKOTEKA

01:00

urriak **15**

COTI

aurreratua 15€
salmenta puntuaren lista
www.lurelizondo.com webean

18'

01:00

OSTIRALERO

Lurtaberna

00:45

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

39 ikaslek hasi dute ikasturtea

Horietarik bortzek, 3 urtekoak, lehen urtea dute

Margari eta Koro

Irailaren 8an hasi ziren eskolara hiru urteko 5 ikasle berriak (haiendako bakarrik izateko maina guztiak...) eta biharamunean hasi ziren gainontzeko 34ak. Aipatzekoa da zonaldeko irakasleak gero eta gehiago ditugula: aurtun baditugu bi baztandar, zubietar bat eta bi lesakar. Edozein moduz, eskertzekoa da hunatan egitera etortzen diren irakasle guztiak erakusten duten borondatea, ongi baitakigu Zugarramurdi eta Urdazubi (distantziagatik) hautatzen diren azkeneko eskolak izaten direla.

Santiago Bidea Xaretatik

Ez da bide ofiziala be-

zain famatua, baina gure Xaretatik ere Santiagoko bide bat pasatzen da. Baionatik etortzen da bide hau, eta Urdazubi eta Baztan gurutzatuz, Belateko mendatea pasatzen du Lantz herrira ailegatuz eta Iruñean finituz, handik bide "ofiziala" segitzeko.

Bide hunen alde gogor ari den talde bat badago eta hoi lanaren esker, bertzeren artean, Urdazubin aterpea ireki zen berriki. Gauza da aterpe hau erabiltzen hasi direla eta orain arte 20 bat lagun bertatik pasatu dira. Urdazubitik abiatzen den bidea ere errex egiteko moduan dago, kanpamentutik abiatuz harri handi batek erakusten baitu nondik joan eta hor-



ARGAZKIA: MARGARI

Abuztuaren hondarreko egunetan bi arratsaldez dozena bat guraso elkar-tu ziren Zugarramurdiko eskolan auzolanean aritzeko. Eskola hau berri-tu zen geroztik (15 bat urte?) ez zen moldaketarik egin estalia dagoen patio-an eta egoera arras kaxkarrean zegoen. Momentuan egin dena kolore bixiz pintatzea izan da, eta luze gabe joko batzuk jarriko dira.

tik aitzinera gezi horiz markatuta dago. Otsondoko kaskoan ere Amaiur aldera jausteko bertze harri batek bidea erakusten du.

Gainera erran behar da ez dela batere bide luzea, Urdazubitik Otsondoko kaskora bi oren exkax nahiko dire-lako eta handik Amaiurera guttiago oraindik.

Medikuntza alternatiboko kontsulta Urdazubin

Medikuntza alternatiboko sendagile batek kontsulta jarri du gure lur hauetan. Izena Jean Marc Hariztoy du eta ortzegunero Mauletik Urdazubira etortzen da, kontsulta lkaburua etxe-

an pasatzera. Ortzegunetan aritzen da baino gan aintzin tenorea hartu behar da 687-739-288 telefonora deituz. Bere espezialitatea pilotarien eskuetako arazoak zaintzea da, baina edozein gaixotasun tratatzen du eskutera-pia, digitopuntura, masaje klasiko eta masaje txinatarra bidez.

Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA • 948 630 763
abokaturia

SAROB SANDERS pentsuak
okindegia
Edegiur, 41 - Tel: 948 630 895 - BERA



Albisuhortz klinika
Iker Albisu Altolagirre
Odontologia Medikua - Kol. Zkila 449
948 631 631
Iparralde 3 - 2. ezk. 31780 Bera

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Soziales
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berriz egiteko laguntza
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Erenta alorpenak
- Erbatasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

LESAMA: Bitirio, 71-behea
Tel: 948 637 050
Fax: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

SARA

Zazpiak Bat dantza taldearen urteko bilkura nagusia irailaren 24an iraganen da

Elizdorre errearen egurrekin egindako artelanak ikusgai daude Herriko Etxean

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Urte guziz bezala, dantza taldeak bere bilkura nagusia antolatzen du, iraganen da irailaren 24an, larunbatarekin, arratsaldeko 8etan Gazteen Etxean. Deneri idekia da. Taldeak jakinarazten du dantza eta txistu kurtsoek berriz hasiko direla urriaren 8an, eta izen emateak egiten direla urriaren 1ean Denen Etxean.

Ataun-Sara

Aurten ere Saratarrak komitatuak ziren Ataunera joitea irailaren 18an, igandearekin. Saratar batzu hurbildu ziren, Zazpiak Bat dantza taldea, Sarako Izarra Pilota taldea, Sai-berri musika taldea, Gaztetxea, Trikitilariak, Herriko Etxea...



ARGAZKIA: LEMOINE

Denboraldiko lehen partida jokatu du Sarako Izarra errugbi taldeak igande hontan.

Osasuna Musika lagun kurtsoak

Kurtsoak berriz hasi dira irailaren 5ean: Sa-

ran Ikastolaren ondoan dagoen gela berrian emanen dira.

-Asteartetan 12:30etan (haga pisuak) 13:30etan

(sabeleko giharreak-ipurmamia)

-Ortzegunetan 19:45etan (step) 20:50etan (stretching).

- Ortzilaretan 9:30etan Power (indartze lana muskulazio haga eta pisuekin).

Errugbia

Irailaren 25ean Sarako Izarra Errugbi taldeak bere txapelketako lehen partida jokatu du Saran Saint Martin de Seignanx-en kontra.

Gorritiren erakusketa

Irail osoan ikusgai daude Herriko Etxean Juan Gorriti eskulturgile nafarraren lanak. Sarako elizako ezkildorra erre zen duela bi urte eta orduan hondatutako egurrekin artelanak egin ditu Gorritik: «Egur errearen bihotza berreskuratu dut eta saratarrei itzuli diet» dio Gorritik.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

 CAFE DE LA MAIRIA
 MAIXAN ETA VERONIQUE
 SARA • TEL

SOULE
Hileta artea
 Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

ZOANSA HYUNDAI
 MARKA GUZIEN KONPONKETA SEAT ALFA

 Barrena, 2 - Alkaga Industrialdea - LESAKA (barrena Barak) -
 Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

MARTIKO
 Ahatekietan adituak eta arituak
 Martikorekin zu zeu sukaldari.

 Martiko Pol Zahar, s/n
 31780 Bera, Nafarroa
 Tel: 948 625016
 Fax: 948 625036
 www.martiko.com

SENPERE

Laborariek eta herritar batzuek diru laguntzak izanen dituzte erregaien prezioa emendatu baita

Senpere eta Baztan artean 1854. urtea baino lehenagoko mugarri bat agertu da

Franck DOLOSOR

Azken asteetan, erregaien prezioaren emendatzea izigarria izan da Senperealdean ere. Kamunzaleak kexu agertu dira baina momentuz ez dute laguntza berezirik eskuratu. Laborariek aldiz, laguntza zorbait izan ditzakete. Frantziako lehen ministroak 30 miliun euroko apaltzeak hitz eman ditu laborarientzat. Neurri horiek gazi goxoak omen dira laborantza munduko sindikatuentzat. FNSEAk urrats bat ikusten du baina Confédération Paysanne taldearen ustez ez da deus

berririk eta gobernauk ez du baliabiderik eskaintzen.

Bertzalde, fuelarekin etxea berotzen eta urteko irabazien arabera zergarik pagatzen ez duten herritarrek 75 euroko diru laguntza ukan dezakete. Laguntzak galde daitezke 2006ko maiatzaren 31a arte gobernuko web orrialdearen bidez.

Mugarri zaharra atxeman dute

Baztan eta Senpere artean mugarri zahar bat agertu da. Bi herri hauek kontseilariak urte guziz bisitatzen dituzte



ARTXIBOKOA

719 ikaslek hasi dute ikasturte berria: 62 Zaldubi ikastolan, 175 San Josepe eskola pribatuan, 279 herriko eta Amotzeko eskola publikoetan eta 203 Arretxea ikastegi pribatu elebidunean.



mugarriak eta aurten sorpresa handia izan dute Zori Benta ondoran. 66garren mugarria erreka baten ondanoan katzen da. Horren ondoran erdi lurperatua zen harri zahar bat zegoen. Hautetsiek harria atera dute eta "S" eta "B" hizkiak irakurri ahal izan dituzte. Baztan eta Senpere arteko mugarri zahar bat atxeman dute. Adituen arabera 1854ko mugen ituna baino lehenagokoa da.

Ikasturte berria hasi da

Buruilaren lehenean, udako bakantzak bururatu ziren eta herriko gazte gehienak lanerat itzuli ziren. Aurten, 62 haur daude Zaldubi ikastolan. San Josepe eskola pribatuan, 175 ikasle dabilta 8 ikasgelatan. Ama eskolako haurrek murgiltze eredu hau dezakete, osoki euskaraz edo osoki frantsesez. Gero, lehen hezkuntzan eredu elebiduna

na eskaintzen da, egun erdia euskaraz eta bertze erdia frantsesez. Herriko bi eskola publikoek 279 biltzen dituzte, 242 herri erdialdean eta bertze 37 Amotzeko ikastegian. Herriko eskola publikoan hezkuntza elebiduna dago, Amotzen ez.

Bigarren hezkuntzari dagokionez, 11 eta 15 urte arteko 203 ikasle dabilta aurten Arretxea ikastegi pribatu elebidunean.





EZKONTZAK

Bruno Pascal Dominique Guy eta **Marie-Therese Zunda**, Sarakoak, agorrilaren 13an.

Pablo Elgorriaga Urrutia eta **Larraitx Nieto Izurriaga**, Irun eta Tolosakoa, Zugarramurdi, abuztuaren 6an.

Ramuntxo Etienne Loperena eta **Fabienne Sanchez**, Senperekoak, abuztuaren 13an.

Jean-François Benjamin Chastel eta **Edwige Karine Gaudin**, Senperekoak, abuztuaren 13an.

Cédric Jaugeat eta **Valérie Marie-Lucie Yvette-Marcelle de Rozario**, Senperekoak, abuztuaren 20an.

Jon Etxart eta **Fanny Garat**, Senperekoak, abuztuaren 20an.

Firmin Joseph Lopez eta **Catherine Chanteux**, Senpere, abuztuaren 27an.

Pedro Jose Trillo Garcia eta **Jaione Goia Irtzoki**, Iruña eta Berakoa, irailaren 8an.

Abdelkader Larbi eta **Ane Guadalupe Mitxelena Enbil**, Tiarec (Argelia) eta Donostiakoa, Goizuetan, irailaren 6an.

Javier Inbuluzketa Lukin eta **Ixone Arrubarren Aleman**, Elizondo eta Arizkungoa, irailaren 3an.

Miguel Angel Iñarrea Etxenike eta **Miren Ariztia Azkarate**, Ziga eta Azpilkuetakoa, irailaren 3an.

Javier Rekondo Maiza eta **Maria Teresa Irigoien Zelaieta**, Leitza eta Zigakoa, abuztuaren 27an.

Miguel Ezpeleta Puras eta **Idoia Yabar Labat**, Iruñekoak Arizkun, abuztuaren 14an.

Jose Alejandro Lozaia Dagerre eta **Ana Isabel Etxenike**, Mexiko eta Baionakoa, Erratzun, abuztuaren 27an.

David Bidart Goñi eta **Maria Plaza Azkarate**, Elizondo eta Lekarozkoa, irailaren 10ean.

Gorka Goñi Grajirena eta **Maixe Oskoz Jauregi**, Oitz eta Arantzakoa, uztailaren 9an.

Asier Arburua Juanikotena eta **Iratxe Iturria Zelaieta**, Etxalarkoak, irailaren 3an.

SORTZEAK

Moustafa El Haou Eddarhour, Narbar-tekoa, abuztuaren 12an.

Itxaso Tipanquiza Verdejo, Berakoa, abuztuaren 18an.

Ane Molinero Barreto, Berakoa, abuztuaren 26an.

Irati Maisterrena Larregi, Amaiurkoa, abuztuaren 13an.

Unax Bidegain Elizalde, Arizkungoa, abuztuaren 19an.

Sara Pop Bontiu, Lesakakoa, abuztuaren 10ean.

Uxue Biurrarena Etxepare, Lesakakoa, abuztuaren 15ean.

